

# **PROZEDURA IREKI BIDEZ DONOSTIAKO AUTOBUS TURISTIKOAREN GARRAIOARI LOTUTAKO OHIKO ETA EZOHIKO ZERBITZUAK ESKAINTZEKO KONTRATUAREN LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN KLAUSULA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN PLEGUA**

## **1. KONTRATUAREN HELBURUA**

Kontratuaren helburua Donostian autobus turistikoaren garraioari lotutako ohiko eta ezohiko zerbitzuak kontratatzea da. SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, SA enpresak eskaintzen du zerbitzu hori Donostiako Udalak zerbitzua kudeatzeko emandako agindua dela-eta.

Kontratuaren helburua, halaber, kontratuari atxikitako autobusa publizitaterako ustiatzea da, Baldintza Teknikoen Pleguan eta Plegu honetan ezarritako moduan.

Zerbitzuak Plegu honetan eta Baldintza Teknikoen Pleguan finkatutakoa betez eskainiko dira eta aplikagarri den sektoreko araudia ere bete beharko da.

## **2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA**

Erakunde kontratatzailea SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, SA da (aurrerantzean, DONOSTIA TURISMOA).

Kontratazio-organoa DONOSTIA TURISMOKO Administrazio Kontseilua da.

## **3. ESLEIPEN PROZEDURA**

Kontratua prozedura ireki bidez esleituko zaio ekonomikoki abantaila gehien dituen eskaintza aurkezten duen lizitatzaileari, Plegu honetan finkatutako balorazio-irizpideei jarraiki.

## **4. ALDAERAK**

Ez dira aldaerak onartuko.

## **5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA**

Kontratu-izaera izango dute, esleipenarekin formalizatutako kontratuak, Klausula Ekonomiko Administratiboen Plegu honek, Baldintza Teknikoen Pleguak eta esleipendunak egindako eskaintzak.

Dokumentu horiek esleipendunak sinatu beharko ditu adostasuna frogatzeko, kontratua formalizatzeko ekitaldian bertan.

## 6. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena **8 urtekoa izango da formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera eta urtebeteko epeetan luzatu ahal izango da, gehienez beste 2 urtean.**

Luzapenak Kontratazio-organoak adostuko ditu epemugaren aurreko urteko azken hiruhilekoan, aurretik esleipendunari jakinarazpen fede-emailea igorrita. Luzapenak nahitaezkoak izango dira Plegu honetan.

Aurreko guztia Plegu honetako 29. klausulan aurrez ikusitako azkentzeko arrazoiak albo batera utzi gabe ulertuko da.

## 7. ARAUBIDE EKONOMIKOA

### 7.1. Autobus turistikoan ohiko garraioaren zerbitzua emateagatik gehieneko prezio unitarioak

Autobus turistikoan ohiko garraioaren zerbitzua emateagatik DONOSTIA TURISMOAK esleipendunari ordaindu beharreko gehieneko prezio unitarioa hau izango da: **5,05 euro bidaiari gazteagatik eta 10,10 euro bidaiari helduagatik.**

Prezio unitarioari BEZa gehitu beharko zaio, une bakoitzean indarrean dagoen tasarekin.

Bidaiari gaztearen eta bidaiari helduaren kontzeptuak zehazteko irizpideak hauek dira:

- **Haurra: 5 urte arte doan**
- **Gaztea: 5 eta 12 urte artean**
- **Heldua: 12 urtetik gora**

Aipatutako bidaiari bakoitzeko gehieneko prezio unitarioek lizitatzailleen eskaintzetan murrizketak jasan ahal izango dituzte.

Prezioa hilero jasoko da, dagokion hilabetea amaitu eta hurrengo 20 egunetan. Ondorio horietarako, aipatutako hilabetea amaitu eta hurrengo 10 egunen barruan esleipendunak Klausula honetako 7.4 atalean aipatutako likidazioa egingo du.

### 7.2. Jarduerak egitetik eta ezohiko zerbitzuak eskaintzetik lortutako emaitzak

Esleipendunak Baldintza Teknikoen Pleguko 4. Preskripzioan aurrez ikusitako baldintzetan jarduerak egiteagatik eta ezohiko zerbitzuak eskaintzeagatik lortutako sarrerak **banatu egingo dira, proportzio honetan: % 20 DONOSTIA TURISMOARENTZAT eta % 80 esleipendunarentzat.**

DONOSTIA TURISMOAK jaso beharreko ehunekoa areagotu egin ahal izango dute lizitzaileek eskaintzetan.

Banaketa hori hileroko egiatutako da, aurreko 7.1. ataleko azken paragrafoan bidaiarien garraio publikoari buruzko zerbitzuen prezioetarako aurrez ikusitakoaren modu berean.

### **7.3. Publizitate-ustiaketaren eta bestelako edozein aprobetxamendu ekonomikoren ondorioz lortutako emaitzak**

Zerbitzuen hornidurari atxikitako ibilgailuaren publizitate-ustiaketaren ondorioz lortutako sarrerak eta, oro har, kontratazioaren xede diren zerbitzuekin lotuta esleipendunak lortutako edozein aprobetxamendu ekonomiko, Baldintza Teknikoen Pleguko 5. Preskripzioan aurrez ikusitako baldintzetan, **zati berdinetan banatuko dira** DONOSTIA TURISMOA eta esleipendunaren artean.

Hori horrela izango da, publizitate-kontratuak bai DONOSTIA TURISMOAK bultzatutakoak izan, bai esleipendunak bultzatutakoak izan.

DONOSTIA TURISMOAK jaso beharreko ehunekoa areagotu egin ahal izango dute lizitzaileek eskaintzetan.

Banaketa hori hileroko egiatutako da, aurreko 7.1. ataleko azken paragrafoan bidaiarien garraio publikoari buruzko zerbitzuen prezioetarako aurrez ikusitakoaren modu berean.

Aurrekoa albo batera utzi gabe, DONOSTIA TURISMOAK enpresari berari eta kanpainei, produktuei eta zerbitzuei buruzko publizitatea, inolako kosturik gabe, txertatzeko eskubidea gordeko du, esleipendunak beste publizitaterik txertatzea kontratatu ez duen kasu eta uneetan.

### **7.4. Likidazioa**

Hilabete naturala amaitu eta hurrengo 10 egunetan, esleipendunak likidazioa egingo du honela:

- Dagokion hilabetean ohiko garraioaren zerbitzuagatik DONOSTIA TURISMOAK bidaiariengandik jasotako guztizko zenbatekotik abiatuko da.
- Zenbateko horri hilabete berean egindako jarduerengatik eta ezohiko zerbitzuak eskaintzeagatik eskuratutako sarrerak gehituko zaizkie, Baldintza Teknikoen Pleguko 4. Preskripzioan eta Plegu honetako 7.2. atalean aurrez ikusitako moduan.
- Zenbateko horiei zerbitzuen hornidurarako atxikitako ibilgailuaren publizitate-ustiaketagatik eta bestelako aprobetxamendu ekonomikoengatik eskuratutako sarrerak gehituko zaizkie, Baldintza Teknikoen Pleguko 5. Preskripzioan eta Plegu honetako 7.3. atalean aurrez ikusitako baldintzetan.

- Aurreko zenbatekoa murriztu egingo da esleipendunari DONOSTIA TURISMOAK zordundutako zenbatekoaren arabera. Aipatutako zordunketa horiek Klausula honetako 7.1. atalean aipatutako eta ohiko garraioarekin lotutako zerbitzuei dagokien prezio unitarioei dagozkienak izango dira, eta dagokion hilabeteko bidaiarien guztizko zenbatekoaren arabera aplikatuko dira.
- Era berean, egindako jarduerengatik eta emandako ezohiko zerbitzuengatik lortutako sarreraren % 80an murriztuko da zenbatekoa (edo eskaintzaren ondoriozko ehunekorik txikiena). Aipatutako jarduera eta prestazio horiek Klausula honetako 7.2 atalean zehaztuta daudenak dira eta dagokion hilabeteari aplikatuko zaizkio.
- Era berean, zerbitzuen hornidurarako atxikitako ibilgailuaren publizitate-ustiaketagatik eta bestelako aprobetxamendu ekonomikoengatik eskuratutako sarrerak erdira (edo eskaintzaren ondoriozko ehunekorik txikienera) murriztuko dira, Baldintza Teknikoen Pleguko 5. Preskripzioan eta Plegu honetako 7.3. atalean aurrez ikusitako baldintzetan.

Likidazioa DONOSTIA TURISMOARI igorri beharko zaio, behar adinako justifikazio-txostenarekin, eta haren oniritzia jaso beharko du.

Likidazio horretatik aterako den emaitza DONOSTIA TURISMOARI ordaindu beharko zaio hilabetea amaitu eta gehienez 20 eguneko epean, DONOSTIA TURISMOAK horren onespenean izan ditzakeen atzerapenak aintzat hartu gabe.

Dena den, alderdiek dagozkien fakturak igortzeko betebeharra izango dute eta dagozkien BEZaren zenbatekoak zehaztu beharko dituzte, eta aurreko guztiak ez du horretan eragingo.

#### **7.5. Kontratuaren balio estimatua**

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (aurrerantzean, SPKLTB) onartzen duen 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 88. artikuluan aurrez ikusitakoaren ondorioetarako, kontratuaren balio estimatua, izango duen iraupen guztirako, luzapenak barne, 1.304.400 EUROKOA da, BEZa kanpo, honela banakatuta:

- Klausula honetako 7.1. atalean aurrez ikusitako autobus turistikoan ohiko garraioaren zerbitzua emateagatik DONOSTIA TURISMOAK esleipendunari ordaindu beharreko estimatutako zenbatekoa, guztira, kontratuaren iraupen osorako, luzapenak barne, hau izango da: 1.000.000 euroko estimazioa.
- Klausula honetako 7.2. atalean aurrez ikusitako eta esleipendunak egindako jarduerengatik eta ezohiko zerbitzuengatik jasotako sarreraren % 80agatik atxiki beharreko estimatutako guztizko zenbatekoa, kontratuaren iraupen osorako, luzapenak barne, hau izango da: 12.000 euroko estimazioa.

- Klausula honetako 7.3. atalean aurrez ikusitako zerbitzuen eta beste aprobetxamendu ekonomiko batzuen prestazioarekin lotutako ibilgailuaren publizitate-ustiaketa dela eta esleipendunak lortutako sarreraren % 50agatik atxiki beharreko estimatutako guztizko zenbatekoa, kontratuaren iraupen osorako, luzapenak barne, hau izango da: 75.000 euroko estimazioa.
- Gerta daitezkeen kontratuaren aldaketengatik estimatutako guztizko zenbatekoa: 217.400 euroko estimazioa.

Estimatutako balio horrek gerta daitezkeen baimendutako kontratuaren aldaketengatik estimatutako prezioaren % 20 jasotzen du, Plegu honetako 27. Klausulan aurrez ikusitakoari jarraiki.

#### **7.6. DONOSTIA TURISMOAREN aldeko eskubideen erreserba**

DONOSTIA TURISMOAK esleipendunarengandik urtean 200 txartel, inolako kosturik gabe, jasotzeko eskubidea izango du.

Era berean, DONOSTIA TURISMOAK zerbitzua erabilera eskusiborako urtean 1-3 aldiz eskuragarri izateko eskubidea izango du, ezohiko zerbitzu modura eta inolako kosturik gabe.

### **8. PREZIOEN BERRIKUSKETA**

**Aurreko Klausulako 7.1. atalean aipatutako garraiatutako bidaiari gazte eta helduaren prezio unitarioak urtero eta modu metakorrean berrikusiko dira, Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako Estatuko kontsumoko prezioen indizeak izandako igoseraren arabera edo hori ordezkatzan duen aurreko urteko indizearen arabera.**

### **9. BETEBEHAR FORMALAK ETA INFORMAZIOZKO BETEBEHARRAK**

Esleipendunak betebeharrak formal eta informaziozko betebeharrak hauek bete beharko ditu:

- Bidaiari bakoitzak txartela edo tiketa jasoko du, DONOSTIA TURISMOAREN baldintzei jarraiki.
- Ezohiko jarduera edo zerbitzu orok DONOSTIA TURISMOAREN alde aurreko berriarazko eta idatzizko baimena izan beharko du.
- DONOSTIA TURISMOARI alde aurretik, berriaraz eta idatziz emango zaio esleipendunak publizitatea esplotatzeko duen eskubideaz balliatuta egin nahi duen txertaketa ororen berri, baita txertaketa horren denborazko baldintzen eta baldintza ekonomikoen berri ere.
- DONOSTIA TURISMOARI txartelen (txartel korrelatiboak) salmentari buruzko hileko informazioa emango zaio.

- DONOSTIA TURISMOARI ezohiko zerbitzuen fakturazioari buruzko hileko informazioa emango zaio.
- DONOSTIA TURISMOARI publizitatearen esplotaziotik lortutako sarrerei buruzko hileko informazioa emango zaio.

Horrez gain, DONOSTIA TURISMOAK egoki irizten dituen egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu ausaz, aurrez aipatutako kontzeptuak egiaztatzeko.

## 10. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuaren esleipendunak, hartutako betebeharrak betetzea bermatzeko xedearekin, estimatutako zenbatekoaren % 1eko behin betiko bermea osatu beharko du, BEZa kanpo.

Berme hori osatzeko epea DONOSTIA TURISMOAK horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita hamar egun baliodunekoa izango da eta SKPLTBko 96. artikuluan xedatutako moduetako edozeinetan osatu ahal izango da.

Abal gisa emandako kasuan, bermea Plegu honetara **I. Eranskin** gisa txertatutako eredura egokituko da.

Bermearen itzulketa SPKLTBko 102. artikuluan xedatutakoari jarraiki egingo da, behin berme-epea amaitu denean eta kontratistak kontratuzko betebeharrak guztiak bete dituenean.

Bermearen gainean esleipendunari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak betez gero, esleipendunak bermea itzuli edo zabaldu beharko du, dagokion zenbatekoaren arabera, egikaritze-uneetik zenbatzen hasi eta hamabost egun naturaleko epean. Hori egin ezean, kontratua bertan behera uzteko kausa izango da.

Kontratuaren aldaketa baten ondorioz, prezioa aldatuko balitz, bermea berriro egokitu beharko litzateke, aldatutako prezio berriarekiko dagokion proportzioa gordetzeko, enpresariari aldatzeko akordioa jakinarazi eta handik hamabost egun naturaleko epean.

Plegu honetan aurrez ikusi gabeko guztirako, SPKLTBko 95. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa izango da aplikagarri.

## 11. GAITASUN BALDINTZAK

DONOSTIA TURISMOAREKIN kontratua sinatu ahal izango dute jarduteko gaitasun erabatekoa duten, kontratatzeko debekurik ez duten eta beren kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala ziurtatzen duten pertsona fisikoek eta juridikoek, espainiarrak nahiz atzerriarrak izan.

Estatutuen edo sortze-arauen arabera, kontratuak berezkoak dituen jardueraren helburu edo alorren barruan kontratuaren prestazioak jasota daudenean bakarrik izan ahal izango dira pertsona juridikoak kontratuaren esleipendunak.

Nolanahi ere, DONOSTIA TURISMOAREKIN kontratatzeko gaitasuna izango dute Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako enpresa ez espainolek, finkatuta dauden herrialdeko legediari jarraiki dagokion zerbitzua eskaintzeko gai direnean, SKPLTBko 58. artikuluan aurrez ikusitakoa aplikagarria izanik.

Enpresa horiek kokatuta dauden herrialdeko legediak dagokion zerbitzua eskaini ahal izateko baimen berezia edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela ziurtatu beharko dute.

Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetako pertsona fisiko edo juridikoek jarduteko gaitasuna ziurtatu beharko dute Espainiak dagokion herrialdean duen Diplomaziazko Misio Iraunkorraren txostenaren bidez edo enpresaren egoitza finkatuta dagoen lurralde-eremuko Kontsuletxeko Bulegoaren txostenaren bidez. Txosten horren bidez atzerriko enpresaren jatorrizko herrialdeak administrazioarekiko eta SKPLTBko 3. artikuluan zerrendatutakoei parekagarriak diren sektore publikoko erakunde edo organismoekiko kontratazioan enpresa espainolen partaidetza ere, funtsean modu parekagarrian, onartzen duela justifikatu beharko du.

Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Hitzarmena sinatu zuten herrialdeetako enpresetako elkarrekikotasunari buruzko txostena albo batera utziko da.

DONOSTIA TURISMOAREKIN kontratatu ahal izango dute xede horretarako aldi baterako osatutako enpresarien elkarteek, eta ez dute eskritura publikoan formalizatzea beharrezkoa izango kontratua beren alde esleitua izan arte, SKPLTBko 59. artikuluan xedatutakoa aplikagarri izanik.

Lizitatzailleek hemen adierazitako kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala dutela frogatu beharko dute:

- Kontratuaren xede diren jardueren alorrean, azken hiru urteetan gutxienez urte bakoitzeko 100.000 euroko negozio-bolumena izatea.
- Azken hiru urteetan, kontratuaren xede denaren antzeko 2 kudeaketa-zerbitzu egikaritu izatea.

Lizitatzailleek, kaudimenaren egiaztapena osatzeko, kontratua exekutatzeko gutxienez hemen adierazitako giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzeko konpromisoa hartu beharko dute:

- Zerbitzu mota horretarako beharrezkoa den gidabaimena indarrean duen gidaria.

- Zerbitzuaren koordinatzailea. Pertsona horrek funtzioak garatu ahal izango ditu eta trabarik gabe komunikatu ahal izango da, ahoz nahiz idatziz, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan.
- Zerbitzuaren arduraduna. Pertsona horrek funtzioak garatu ahal izango ditu eta trabarik gabe komunikatu ahal izango da, ahoz nahiz idatziz, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan.

Pertsona berak garatu ahal izango ditu zerbitzuko koordinatzailearen eta arduradunaren funtzioak.

- Baldintza Teknikoen Pleguko 2.1.1. Klausulan adierazitako gutxieneko ezaugarri teknikoak beteko dituen autobusa.
- Automatizatutako txartelen kudeaketarako sistema (kontratua sinatu eta 6 hilabeteko epean gehienez) eta informazio-puntua. Elementu horretan jasotako informazio guztia 4 hizkuntzatan egongo da gutxienez: euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa.

Konpromiso honek funtsezko kontratuzko izaera izango du SPKLTBko 223.f) artikuluan aurrez ikusitako ondorioetarako eta, beraz, hori ez betetzea DONOSTIA TURISMOAREN aldetik kontratua bertan behera uzteko arrazoia izango da.

Kontratua betetzeko aurrez adierazitako beharrezko kaudimena ziurtatzeko edo aipatutako gutxieneko giza baliabideak edo baliabide materialak atxikitze konpromisoa betetzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzeko asmoa duten lizitatzaileek, haiekin dituzten izaera juridikoko loturak albo batera utzita, notario aurrean emandako idatzia ekarri beharko dute (**III. Eranskinean** jasotako ereduaren arabera) eta inplikaturako enpresek honako hauek adieraziko dituzte bertan: lizitatzaileak lehiatutako lizitazioko baldintzak osotasunean ezagutzen dituztela; adierazitako kaudimena dutela, horren ziurtagiria ekarrita (13. Klausulan aurrez ikusitako moduan); lizitatzailea esleipenduna izanez gero, kontratua egikaritzeko beharrezko baliabideak bere esku jartzeko atzera bota ezin den nahia adieraziko dute (Kode Zibileko 1257.2. artikuluan xedatutakoa berariaz onartuta, ordezkapena edo aldaketa Administrazioak berariaz baimendu behar izanda). Idatzi hori aurkezteak DONOSTIA TURISMOAK konpromisoa onartzea ekarriko du, delako lizitatzailea esleipendun ateratzen baldin bada.

## 12. PUBLIZITATEA

Lizitazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA TURISMOAREN kontratatzaile-profilean iragarriko da.

Esleipena DONOSTIA TURISMOAREN kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

Formalizazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA TURISMOAREN kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

Profil horretara web-orrialde honetatik sartuko da:  
[www.sansebastianturismo.com](http://www.sansebastianturismo.com)

Iragarkien zenbatekoa enpresa esleipendunaren kontura izango da.

### **13. ESKAINTZEN ETA DOKUMENTAZIOAREN AURKEZPENA**

Proposamenak aurkezteak enpresariak Plegu hau eta Baldintza Teknikoen Plegua oso-osorik, salbuespenik gabe eta baldintzarik gabe, onartzen dituela esan nahi du.

Plegu honetara eta Baldintza Teknikoen Plegura DONOSTIA TURISMOAREN kontratatzaile-profiletik sartu ahal izango da.

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresek DONOSTIA TURISMOAREN bulegoetan (Boulevard 8, Donostia), eta iragarkia EBAOri igortzen denetik 40 egun naturaleko epean, itxitako hiru gutun-azal aurkeztu beharko dituzte ondoren adierazitako dokumentazioarekin batera eta horietan enpresaren izena, eskaintza sinatzen duenaren izen-abizenak eta zer izaerarekin sinatzen dituen adieraziko da.

Gutun-azal bakoitzaren atzealdean inskripzio hau azalduko da: *“Donostian autobus turistikoaren garraioari lotutako ohiko eta ezohiko zerbitzuak kontratatzeko lizitazioan, prozedura ireki bidez, parte hartzeko eskaintza”*.

Alderdi lizitatzailleak proposamena posta bidez bidaltzen badu, bidalketaren ezarpen-data justifikatu beharko du postetxean eta DONOSTIA TURISMOARI iragarri beharko dio eskaintza igorri duela telex, fax (943 42 81 22 zenbakian) edo telegrama bidez egunean bertan. Posta elektronikoa bidez ere iragarri ahal izango da (helbide honetan: [direccionsansebastianturismo@donostia.org](mailto:direccionsansebastianturismo@donostia.org)). Proposamena bidali izana posta elektronikoa bidez jakinaraziz gero, ezinbestekoa izango da, baliagarri izateko, posta transmititu eta jaso izana, data eta komunikazioen eduki osoa azaltzea bertan, eta igorlea eta hartzailea modu fidagarrian identifikatzea. Kasu horretan, kopia inprimatua eskuratu, erregistratu eta espedientean sartuko da.

Bi baldintzak betetzen ez badira, dokumentazioa ez da onartuko iragarkian adierazitako epea amaitutako eguna eta orduaren ondoren jasotzen bada.

Adierazitako egunetik hamar egun natural igaro eta dokumentaziorik jaso ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

Gutun-azal bakoitzeko edukia barruan aparteko orri batean zerrendatu beharko da eta hemen adierazitako dokumentuak izan beharko ditu:

## 1. gutun-azala.- "KONTRATATZEKO AHALMENA"

a) Enpresariaren jarduteko gaitasunaren dokumentu egiaztagarriak eta, kasuan kasu, ordezkariarenak:

- Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna eratzeko eskrituraren edo dokumentuaren, estatutuen edo sortze-egintzaren bidez egiaztatuko da; horietan jarduera arautzen duten arauak azalduko dira, kasuan kasu, dagokion Erregistro Publikoan behar bezala jasota, pertsona juridiko motaren arabera.

- Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako enpresari ez espainolen jarduteko gaitasuna finkatuta dauden herrialdeko legediari jarraiki dagokion erregistroan jasota edo zinpeko aitortpena edo aplikagarri diren batasuneko xedapenen araberrako ziurtagiria aurkeztuta egiaztatuko da.

- Gainerako enpresari atzerritarren jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion herrialdean duen Diplomaziazko Misio Iraunkorraren txostenaren bidez edo enpresaren egoitza finkatuta dagoen lurralde-eremuko Kontsuletzeko Bulegoaren txostenaren bidez egiaztatuko da. Txosten horren bidez justifikatu beharko du atzerriko enpresaren jatorrizko herrialdeak administrazioarekiko eta SKPLTBko 3. artikuluan zerrendatutakoei parekagarriak diren sektore publikoko erakunde edo organismoekiko kontratazioan enpresa espainolen partaidetza ere onartzen duela, funtsean modu parekagarrian.

Alde batera utziko da elkarrekikotasun-txostena Munduko Merkataritza Antolakundearen kontratazio publikoari buruzko Akordioa izenpetutako Estatuetakoa enpresei dagokienez.

- Pertsona fisikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna Nortasun Agiri Nazionala edo dagokion herrialdean baliokidea dena aurkeztuta egiaztatuko da.

- Besteen izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionalaren kopia eta horretarako ahalorde askietsia aurkeztuko dute. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritzako Erregistroan jasota azaldu beharko du, Merkataritza Erregistroko Araudiaren 94. artikuluan xedatutakoari jarraiki hala eskatzen denean.

- Aldi baterako elkartean lehiatu nahi duten enpresariak elkartea osatzen dutenen izenak eta inguruabarrak, eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte, era berean, esleipendun izanez gero, aldi baterako elkartea formalki osatzeko konpromisoa hartzen dutela adierazi beharko dute. Aldi baterako elkartean lehiatu nahi duten enpresariak betebeharrak solidarioa izango dute eta elkarteko ordezkari edo ahaldu bakarra izendatu beharko dute eskubideak egikaritzeko eta kontratua amaitu arte hartatik sortutako betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiekin eta, nolana ere, zenbateko esanguratsuko kobrantzak eta ordainketak egiteko ahalorde mankomunatuak eman ahal izango dira.

Dokumentazio horren guztiaren jatorrizko agiria edo behar bezala konpultsatutako edo baimendutako kopia aurkeztuko da.

**b)** Lekukotza judiziala edo ziurtagiri administratiboa, kasuaren arabera, enpresaria SPKLTBko 60.1. artikuluan xedatutako kontratatzeko debekuetan sartuta ez dagoela adierazten duena. Dokumentu hori agintaritza eskudunak eman ezin duenean, agintaritza administratiboaren, notario publikoaren edo gaitutako organismo profesionalaren aurrean emandako erantzukizun-aitorpenarekin ordezkatu ahal izango da eta Plegu honetan **II. Eranskin** gisa atxikitako eredura egokituko da.

Lekukotza edo aitorten horrek enpresaria indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren betekizunean egunean dagoela adierazten duen adierazpena jasoko du eta ekonomikoki onena den eskaintza aurkeztu duen lizitzaileak baldintza hori egiaztatzen duen justifikazioa aurkeztu beharko du DONOSTIA TURISMOAK horretarako egindako eskaera jaso eta gehienez hurrengo hamar egun balioduneko epean.

**c)** Plegu honetako 10. Klausulan eskatutako Euskadiko Errepideko Bidaiari Garraioaren 2004ko martxoaren 18ko 4/2004 Legearen 10. artikuluan eta hurrengoetan garraio publikoaren garapenerako eskatutako baldintzak betetzearen egiaztapena.

**d)** Enpresa lizitzaileek 11. Klausulan adierazitako kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala dutela frogatu beharko dute.

Kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala honako hauen bitartez egiaztatuko da:

- Kontratuaren xede diren jardueren alorreko negozio-bolumenaren aitortpena, azken hiru urteetako eta urte horietako bakoitzekoa.
- Azken hiru urteetan kontratuaren xede denaren antzeko 2 kudeaketa-zerbitzu egikaritu izanaren egiaztapena, kontratuaren xedea osatzen duten azken hiru urteetan egikaritutako zerbitzuen antzeko ezaugarriak dituzten zerbitzuen zerrenda bidez, zenbatekoak, datak eta zerbitzuen hartzailea jasota.

**e)** Kontratua egikaritzeko, gutxienez, 11. Klausulan aipatutako giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzeko konpromisoa.

Atxikitako pertsonak izenez identifikatuko dira, *curriculum vitae* gehituta eta dakizkiten hizkuntzak adierazita.

Baliabide materialekin lotuta, material bakoitzaren deskribapen xehatua eman beharko da eta ibilgailuaren fitxa teknikoa ere eman beharko da.

Konpromiso honek funtsezko kontratuzko izaera izango du SPKLTBko 223.f) artikuluan aurrez ikusitako ondorioetarako eta, beraz, hori ez betetzea DONOSTIA TURISMOAREN aldetik kontratua bertan behera uzteko arrazoia izango da.

**f)** Kasuan kasu, eskatutako kaudimena eta/edo gutxieneko giza baliabide eta baliabide material jakinen atxikipen-konpromisoa egiaztatzeko lizitatzailleak beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzeko asmoa duenean adierazpenen notario-akta, **III. Eranskin**eko ereduari jarraiki.

**g)** DONOSTIA TURISMOTIK egiten diren jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bitartekoa izendatzeko dokumentua, Plegu honetan **IV. Eranskin** gisa atxikitako ereduaren arabera.

**h)** Atzerriko enpresek edozein mailatako Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikziopean jartzeko berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute, kontratutik, zuzenean edo zeharka, sor daitezkeen gertakari guztietarako, kasuan kasu, lizitatzailari dagokion atzerriko eskumeneko foruari uko eginez.

#### **Oharrak:**

- (i) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala arautzen duen 1998ko otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak araututako Kontratisten Erregistro Ofizialean jasotako lizitatzailleek Erregistroko abokatu arduradunak igorritako ziurtagiriaren konpultsatutako kopia aurkeztu ahal izango dute a) atalean eskatutako dokumentazioaren ordez.
- (ii) Enpresa atzerritarrek dokumentazioa, kasuan kasu, gaztelaniara edo euskarara ofizialki itzulita aurkeztuko dute.
- (iii) DONOSTIA TURISMOAK beretzat gordeko du egoki jotzen dituen egiaztapenak egiteko edo beharrezko jotzen duen dokumentazio osagarria eskatzeko eskubidea, lizitatzailleek emandako informazioaren egiazkotasuna egiaztatzeko xedearekin.

## **2. gutun-azala.- "PROPOSAMEN TEKNIKOA"**

Dokumentu hauek jasoko ditu:

**a) Garatu beharreko jardueren eta zerbitzuen kudeaketa-proiektuak** honako hauek jasoko ditu:

- Jarduera eta zerbitzu horiek antolatzeko eta kudeatzeko plana
- Zerbitzuak zabaldu eta sustatzeko eta horiei buruz informatzeko marketineko jarduera-plana

**b)** Kontratuaren exekuziora atxiki beharreko **lantaldearen deskribapena**, 11. Klausulan eskatutako gutxienekoarekiko izaera osagarriarekin ere, horren organigrama, bertako kideen titulazioa, bakoitzaren dedikazioa eta curriculum vitae adierazita.

Publiko gehiago etortzetik edo ordutegiak zabaltzetik sortutako unean uneko edo urtaroen arabera beharren aurrean lizitatuzaileak zerbitzua indartzeko duen gaitasuna baloratuko da.

Gidariak hizkuntzak jakitea baloratuko da eta, batez ere, euskara jakitea.

- c) Kontratuaren egikaritzeari atxiki beharreko **baliabide tekniko eta materialen deskribapena**, horien deskribapen xehatuarekin, instalatu beharreko txartelak saltzeko makinak, informazio-puntuak eta abar barne.

Besteak beste, atxikitako autobusaren espezifikazioak eta baldintza zehatzak baloratuko dira eta baita kontratuaren egikaritzearen eskura jarritako ekipamenduak ere, hala nola megafoniakoak, aurikularrak eta abar.

- d) Alderdi hauei buruzkoak izan daitezkeen **hobetzeko proposamenak**:

- Egutegiaren, bidaien, ordutegien, ibilgailu kopuruaren eta abarren hedapena.
- Zerbitzuaren ingurumen-hobekuntza, zerbitzuaren kalitatea eta abar.
- Beste hizkuntza batzuen erabilera publikoarekiko harremanean.
- Erabiltzaileei eskaintzeko zerbitzu osagarriak.
- Baldintza Teknikoen Pleguan jasotako zerbitzuaren ezaugarriekin lotuta eskaintutako beste edozein.

DONOSTIA TURISMOAK beretzat gordeko du egoki jotzen dituen egiaztapenak egiteko edo beharrezko jotzen duen dokumentazio osagarria eskatzeko eskubidea, lizitatuzaileek emandako informazioaren egiazkotasuna egiaztatzeko xedearekin.

### **3. gutun-azala.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA"**

Lizitatuzaileek proposamen ekonomikoa aurkeztu beharko dute, Plegu honetan IV. Eranskin gisa atxikitako ereduari jarraiki.

## **14. BALORAZIO IRIZPIDEAK**

Dagokion haztapenarekin adierazitako balorazio-irizpideak hauek izango dira:

- Proposamen teknikoa 70 puntu arte.

Hauek baloratuko dira:

- a) Zerbitzua esplotatzeko eta kudeatzeko proiektua: 25 puntu arte.
- b) Lantaldearen deskribapena 10 puntu arte.

- |  |    |       |
|--|----|-------|
| c) Baliabide tekniko eta materialen deskribapena arte. | 15 | puntu |
| d) Hobetzeko proposamenak arte.                        | 20 | puntu |
- Proposamen ekonomikoa 30 puntu arte.

Honela baloratuko da:

- a) Bidaiari helduaren gehieneko prezio unitarioa eskaintzen duenak (10,10 €) 0 puntu eskuratuko ditu eta gainerakoei 10,10 €-ko gehieneko eskaintzaren eta eskaintza baxuenaren artean proportzionalki kalkulaturako puntuazioa emango zaie, gehienez ere **15** puntu arte. Beste horrenbeste egingo da gazteentzako prezioarekin; atal horri gehienez ere **5** puntu emango zaizkio.
- b) Ezohiko zerbitzuekin lotuta, DONOSTIA TURISMOARI dagokion ehuneko gisa fakturazioaren % 20 eskaintzen duenak 0 puntu eskuratuko ditu eta gainerakoei 20ko eskaintza txikienaren eta altuenaren artean proportzionalki kalkulaturako puntuazioa emango zaie, guztira **5** puntu arte.
- c) Publizitate-ustiaketarekin eta beste edozein aprobetxamendu ekonomikorekin lotuta, DONOSTIA TURISMOARI dagokion ehuneko gisa fakturazioaren % 50 eskaintzen duenak 0 puntu eskuratuko ditu eta gainerakoei 50eko eskaintza txikienaren eta altuenaren artean proportzionalki kalkulaturako puntuazioa emango zaie, guztira **5** puntu arte.

## 15. EBALUAZIO BATZORDEA

Proposamenak baloratzeko Ebaluazio Batzordea kide hauek osatuko dute:

- DONOSTIA TURISMOAKO gerentea
- DONOSTIA TURISMOAKO gerentzia albokoa
- Udaleko Mugikortasun Saileko langileak

## 16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak aldeaz aurretik garaiz eta behar bezala aurkeztutako 1. gutun-azalean ("Kontratatzeko ahalmena") jasotako dokumentazioa kalifikatuko du. Aurkeztutako dokumentazioan zuzengarriak diren okerrak topatuko balitu, hiru egun balioduneko epea eman ahal izango du, lizitatzailleak horiek zuzen ditzan.

Ondoren, proposamen teknikoaren jasotzen duen 2. gutun-azala irekiko da, hori aztertu eta baloratzeko.

Horren ostean, proposamen ekonomikoa jasotzen duen 3. gutun-azala irekiko da, balorazioa egiteko.

Ebaluazio Batzordeak Kontratazio-organoari aurkeztuko dio egindako proposamenen zerrenda, behearazko ordenan sailkatuta, 13. Klausulan finkatutako balorazio-irizpideen arabera, eta ekonomikoki abantaila gehien dituen eskaintza identifikatuko du.

Proposamena egin aurretik, beharrezko jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

Ebaluazio Batzordearen proposamenari txosten juridikoa egingo zaio.

Ebaluazio Batzordeak ekonomikoki onena den proposamena identifikatzeak ez du proposatutako lizitatzailaren alde inolako eskubiderik sortuko.

## **17. ESLEIPENA**

Kontratazio-organoak, arau orokor gisa, DONOSTIA TURISMOKO Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenera egokitu beharko du, esleipenerako hautatutako lizitatzaila aukeratzeko. Kontrako kasuan, Kontratazio-organoak proposamenetik bereizteko erabakia bultzatu beharko du, kasuan kasu, proposamenen behin betiko sailkapena eginda.

Kontratazio-organoak eskaintza ekonomikorik onena aurkeztu duen lizitatzailari eskakizuna jaso eta hurrengo hamar egun baliodunetan dokumentazio hau aurkezteko eskatuko dio:

- a) Agiri honetako 10. klausulan aurrez ikusitako behin betiko bermea osatu izana egiaztatzen duen egiaztagiria.
- b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- c) Kontratua egikaritzeko konprometitutako giza baliabide eta baliabide materialen eskuragarritasun eraginkorra ziurtatzen duen dokumentazioa.

Eskakizuna adierazitako epean behar bezala bete ezean, lizitatzailak eskaintza kendu egin duela joko da eta kasu horretan, eskaintzak sailkatzeko erabilitako ordenaren arabera, hurrengo lizitatzailari eskatuko zaio dokumentazio hori bera.

Kontratazio-organoak kontratuaren esleipena aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan eta gehienez bi hilabeteko epean erabakiko du, proposamenak zabalduetako egunetik zenbatzen hasita.

Esleipena Kontratazio-organoak adostuko du ebazpen arrazoituan, lizitatzaillei jakinaraziko zaie haiek proposamenean adierazitako lehentasunezko bitarteko bidez eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

## **18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA**

Kontratua formalizazioaren bidez burutuko da.

Kontratua formalizatu aurretik, kontratuaren esleipendunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- a) Kasuan kasu, enpresen aldi baterako elkartearen legezko osaketa eta elkarte horren IFK zenbakia.
- b) Plegu honetako 22. Klausulan araututako aseguru-kontratuaren kopia.
- c) Lizitazioaren iragarpen-gastuak ordaindu izanaren ordainagiria.

Kontratua formalizatzeko aldera, behin lizitatzaillei esleipenaren jakinarazpena igorritako egunetik hamabost egun balioduneko epea igarota, DONOSTIA TURISMOAK eskaera igorriko dio esleipendunari formalizazioa egiteko xedearekin eta hori dokumentu pribatuan egingo da eskaera jaso eta hurrengo egunetik hasita bost egun naturaleko epean.

Esleipendunak, ordea, kontratua eskritura publiko gisa aurkeztu ahal izango du. Kasu horretan, formalizazio-gastuak bere kontura izango dira.

Kontratuaren formalizazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA TURISMOAREN kontratatzaile-profilean argitaratuko da. Hori formalizatutako egunetik berrogeita zortzi egun naturaleko epea baino lehen.

Kontratistari egozgarriak diren arrazoiengatik kontratua adierazitako epearen barruan formalizatuko ez balitz, DONOSTIA TURISMOAK kasuan kasu dagozkion kalte-galerengatik kalte-ordaina eskatu ahal izango du eta hurrengo lizitatzailleari Plegu honetako 16. Klausulan eskatutako dokumentazioa eskatuko dio, hamar egun balioduneko epea emanda hura aurkezteko.

## **19. KONTRATUA EGIKARITZEA**

Kontratua kontratistaren arrisku eta benturara egikarituko da.

Kontratuko prestazioak honako hauetan jasotako akordioak zehatz-mehatz beteta egikarituko dira: Plegu hau, Baldintza Teknikoen Plegua, esleipendunak aurkeztutako eskaintza, kontratatutako zerbitzuen berezko izaerako arau teknikoak eta kontratuaren interpretazio teknikoari jarraiki DONOSTIA TURISMOAK kontratistari emandako jarraibideak.

Enpresa kontratatzaileak ahalik eta berme handienarekin eskaini beharko du zerbitzua, langileen artean jarrera profesional eta zaintzailea izan dadin ahaleginduz.

Enpresa kontratatzaileak alor hauetan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu prestazioa egikaritzeko enplegatutako langileekin lotuta: alor fiskala, lan arloa, Gizarte Segurantza eta Laneko Arriskuen Prebentzioa. Xede horretarako, aipatutako alorrean beharrezkoak izan daitezkeen prestakuntza-ikastaroak eskaini beharko dizkie langileei.

Enpresa kontratatzailea arduratuko da langileek laneko segurtasun, higiene eta osasun alorrean indarrean dagoen araudia eta Kontratazio-organotik etor daitezkeen funtzionamendu orokorreko araudia bete dezaten.

Langile guztiak enpresa kontratatzailearen mende egongo dira eskusiboki eta hark izango ditu enpresaria den aldetik dagozkion eskubideak eta betebeharrak eta, beraz, lan-harreman horietatik edo gainerako betebeharretatik sortutako erreklamaziorik ezingo zaio egin DONOSTIA TURISMOARI.

Enpresa kontratatzailea izango da prestazioa ematen lan egiten duten langileekin zerikusia duen ezbehar edo erreklamazio (judizial edo estrajudizial) ororen arduradun bakarra eta DONOSTIA TURISMOAK ez du bere gain hartuko enpresa kontratatzaileak, zuzenean edo zeharka, hartutako laneko (laneko segurtasun, higiene eta osasunari buruzko erantzukizuna barne), Gizarte Segurantzako edo arlo fiskaleko inolako erantzukizunik. Era berean, enpresa kontratatzaileak hartuko ditu bere gain prestazioaren egikaritzetik sortutako ezbeharretatik etorritako erantzukizunak.

Kontratuaren xede diren zerbitzuak emateak ez du biltzen inolaz ere DONOSTIA TURISMOAK izaera pertsonaleko datuak tratatzea.

Hori horrela, enpresa esleipendunak jardueren testuinguruan garatutako izaera pertsonaleko datuen tratamendu oro, kontratuak iraun artean, bere kabuz eta erabakiz egindakoa dela ulertuko da eta tratamendu horren arduraduna den aldetik bere gain hartuko du Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta horren garapen-araudian, tratamendu horren ondorioz, horretarako xedatutako betebeharren betekizuna.

## **20. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK**

Kontratastaren betebeharrak izango dira:

- a) Kontratua betetzea klausuletan eta Pleguetan xedatutakoa zehatz-mehatz beteta eta Kontratazio-organoak kontratastari emandako jarraibideak beteta.
- b) Zerbitzuen hornidura Baldintza Teknikoen Pleguan eta une bakoitzean indarrean dagoen aplikazioko sektoreko araudian xedatutakoari jarraiki.

- c) Zerbitzuen hornidura hitzartutako jarraitasunarekin eta erabiltzaileei finkatutako baldintzetan erabiltzeko eskubidea bermatzea.
- d) Baldintza Teknikoen Pleguan adierazitako zirkulazioak eta ibilbideak soilik egitea.
- e) Egin nahi diren ezohiko zerbitzu edo jarduera guztien aldez aurreko eta idatzizko jakinarazpena; horien garapenerako DONOSTIA TURISMOAREN aldez aurreko berariazko eta idatzizko baimena beharko da, nolana ere.
- f) Txartela (ohiko garraioa denean) edo DONOSTIA TURISMOAREN aldez aurreko berariazko eta idatzizko baimena duten erabiltzaileei (ezohiko garraioa denean) soilik ematea zerbitzuak, Donostian Plegu honetan edo Baldintza Teknikoen Pleguan jaso gabeko edo DONOSTIA TURISMOAK aldez aurretik baimendutako bidaia oro egiteari uko eginda.
- g) Esleipendunak, pertsona fisikoa nahiz juridikoa izanik, bere jardueran indarrean dagoen arloko araudia bete beharko du.
- h) Eskaintzan konprometitutako giza baliabideak eta baliabide materialak kontratuari atxikitzea.
- i) Eskaintzan proposatutako txartelak saltzeko makinen, informazio-puntuak eta abarren instalazioa, mantentze-lanak eta garbiketa bere kontura izango dira.
- j) Gidariei, ibilgailuei eta abarri buruzko sektoreko araudia betetzea.
- k) Zerbitzua eskaintzen duen ibilgailuak izan ditzakeen gora-behera edo matxurengatik gehienez 24 orduko epean ordezkatzeko erreserbako ibilgailu bat gutxienez izatea.
- l) Edonolako gertaeren aurrean gehienez 24 orduko epean kontratuari atxikitako gidaria ordezkatzeko erreserbakoa edukitzea.
- m) Zerbitzua bidaiariak garraiatzeko baimendutako ibilgailuetan egitea, Baldintza Teknikoen Pleguan xedatutakoari jarraiki.
- n) Azpiegitura osagarria duten geltoki guztietan (markesinak edo zutabeak) zerbitzuari buruzko informazioa jartzea, Baldintza Teknikoen Pleguko 2. Klausulako 2.1.3. atalean finkatutako baldintzetan.
- o) 7. Klausulako 7.4. atalean deskribatutako likidazioa hileroko egitea.
- p) Zerbitzua abian jartzetik eta exekuziotik sortzen diren gastuen ordainketa bere kontura izango da.
- q) Plegu honetako 9. Klausulan adierazitako betebeharrak formalak eta informaziozkoak betetzea (gardentasuna sarreraren kontrolerako sarreraren, txartelen salmentarekin lotutako datuak, fakturazio orokorra).

- r) Behin betiko bermea sortzea.
- s) Plegu honetako 22. Klausulan araututako aseguruaren kontratuaren indarraldi guztian mantentzea.
- t) Erreklamazio-orriak jartzea, Donostiako Hiri Garraio Publikoaren Zerbitzuko Araudiaren 40. artikuluan xedatutako baldintzetan.
- u) Errotuluak jartzean, komunikazioetan, garraio-tituluetan eta abar gutxienez bi hizkuntza ofizialak erabiltzea, euskarari lehentasuna emanda.

Kontratatutaren langileen eta kontratua egikaritzeko harremana izan beharko duen erabiltzaileen edo hirugarrenen arteko komunikazioetan erabilitako hizkuntza erabiltzaileak edo hirugarrenok, kasu kasu, aukeratutakoa izango da.

- v) Kontratuari atxikitako langileek Donostiako Hiri Garraio Publikoaren Zerbitzuko Araudiaren 33. artikuluan xedatutako betebeharrak betetzea, erabiltzaileekiko tratuarekin lotuta.
- w) Zerbitzuak betetzea, kontratatutako zerbitzuaren hornidurari eragiten dion grebaren kasuan.

Zerbitzu horiek bermatuko ez balira, DONOSTIA TURISMOAK zerbitzuak betetzeko beharrezko kontratuak bultzatzeko eskumena izango luke eta horien zenbatekoa fakturaziotik kenduko litzateke.

Greba-aldian, eraginkortasunez emandako zerbitzuen prezioa soilik ordainduko da.

- x) Langileak ordezkatzeko kasu hauetan: funtzioa behar bezalako ardurarekin eta eraginkortasunarekin betetzen ez dutenean, horretarako prestatuta ez daudenean, zerbitzuen garapenean arreta gutxiarekin jokatzeko dutenean edo kontratuaren garapen egokirako ekintza kaltegarriak garatzen dituztenean. Hori DONOSTIA TURISMOAK xede horretarako eskakizuna egin eta gehienez hogeita lau orduko epean egin beharko du, zerbitzua ez etetea bermatuta, betiere.
- y) Gaixotasunengatiko bajek, oporraldiek, baimenek, lizentziek, istripuek eta abarrek eragindako laneko gabeziak estaltzeko langileen ordezkapena, kontratatutako zerbitzuen eskaintza eraginkorra bermatzeko. Hori guztia hogeita lau orduko epean gehienez ere.

Klausula honetako betebeharrak guztiek funtsezko kontratuzko izaera izango dute SPKLTBko 223.g) artikuluan aurrez ikusitako ondorioetarako eta, beraz, horiek ez betetzea DONOSTIA TURISMOAREN aldetik kontratua bertan behera uzteko arrazoia izango da.

## **21. KONTRATUAREN ARDURADUNA**

Kontratuaren arduraduna gerentziaren albokoa izango da eta horren arduraduna izango da exekuzioa gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea, hitzartutako hornidura behar bezala betetzea bermatzeko, kontratuak emandako gaitasunen barruan.

Enpresa kontratatzaileak nahitaez bete beharko ditu kontratuko arduradunak emandako jarraibideak.

Kontratuko arduraduna arduratuko da gorabeheren akta egiteaz, kontratuaren exekuzioan igarritako urraketak salatuz.

DONOSTIA TURISMOAK edozein unetan aldatu ahal izango du arduradun berria, aldezturik enpresa kontratatzaileari jakinarazita.

## **22. ASEGURUA**

Lurreko Garraioaren Antolamenduko Araudiaren 5. artikuluan xedatutakoari jarraiki, esleipendunak Bidaiarientzako Derrigorrezko Asegurua sinatu beharko du, Bidaiarientzako Derrigorrezko Aseguruaren Araudia onartzen duen 1989ko abenduaren 22ko 1575 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzeko. Aseguru horrek bermatutako estaldurak, istripuaren ondorioz bidaiariaren heriotza, ezintasun iraunkorra edo aldi baterako ezintasuna gertatzen denean, kalte-ordain ekonomikoak eta beharrezko osasun-laguntza jasoko ditu.

Era berean, esleipendunak nahitaezko erantzukizun zibileko aseguruaren poliza izan beharko du, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko Erantzukizun Zibilari eta Aseguruari buruzko Legearen Testu Bateginean xedatutakoaren arabera.

Horrez gain, esleipendunak poliza hauek izan beharko ditu:

- Borondatezko Erantzukizun Zibileko Asegurua edo nahitaezko aseguruaren osagarria (50.000.000 euro gehiegi).
- Defentsa juridikoa (konpainiako abokatuekin, mugarik ez, bertako abokatuekin muga 600 eta 1.500 euro artekoa izan ohi da) eta erreklamazioa.

## **23. KONFIDENTZIALTASUNA**

Plegu honetan esleipenaren publizitatearekin eta lizitatzaillei eman beharreko informazioarekin lotutakoari dagokionez xedatutakoari kalterik egin gabe, Kontratazio-organoak ezingo du enpresariak konfidentzialtat izendatuta emandako informazioa zabaldu; horrek sekretu teknikoei edo merkataritzako sekretuei eragingo baitie, bereziki.

Kontratistak, bere aldetik, kontratuaren egikaritzea dela eta, eskuragarri duen informazioaren izaera konfidentziala, kontratuan izaera hori emandako

informazioaren konfidentziasuna edo, berezko izaera dela eta, konfidentziazat jo beharrezko informazioaren konfidentziasuna errespetatu beharko du.

Konfidentziazat joko dira bereziki eta ezingo dira ez argitaratu, ez zabaldu, kontratistari kontratuaren exekuzioa dela eta emandako edozein euskarritako informazioak, dokumentuak, fitxategiak edo espezifikazioak.

Konfidentziasun-betebehar hori mugarik gabe mantenduko da.

## 24. ZIGORRAK

Kontratistak kontratua bete beharko du indarrean dagoen bitartean, Klausula ekonomiko administratiboen pleguari eta Baldintza Teknikoen Pleguari jarraiki.

Kontratistak, berari egozgarriak zaizkion arrazoiengatik, **atzerapena izango balu, kontratatutako prestazioen egikaritze akastuna egingo balu edo kontratuko beste edozein baldintza beteko ez balu, DONOSTIA TURISMOAK** kontratua Plegu honetako 29. Klausulako baldintzen arabera bertan behera uztea edo, era berean, egikaritzearekin jarraitzea **aukeratu ahal izango du** eta DONOSTIA TURISMOARI **dagozkion kalte-galeren kalte-ordainez gain, haren alde honako kantitate hauek sortuko dira izaera metagarriarekin:**

- **Kontratuaren estimatutako balioaren % 0,5en kantitate baliokidea kasu hauetan:**
  - Esleipendunari egozgarria zaion arrazoiagatik zerbitzuaren horniduran maiztasunak ez errespetatzeagatik.
  - Erabiltzaileari emandako informazioko gabeziengatik.
  - Makinaren/informazio-puntuaren funtzionamendu okerragatik.
- **Kontratuaren estimatutako balioaren % 1en kantitate baliokidea kasu hauetan:**
  - Zerbitzuaren hornidura arrazoirik gabe partzialki eteteagatik eta Baldintza Ekonomiko Administratiboen Pleguan jasotako funtsezko kontratu-betebeharrak ez betetzeagatik.
  - Finkatutako ordutegiak ez errespetatzeagatik.
  - Informazio-puntua / txartelak saltzeko makina ez mantentzeagatik.
  - Gidariaren egiaztapen profesionala falta izateagatik zerbitzua eskaini bitartean.
  - Megafonia-sistemaren funtzionamendu okerragatik.

- Kontsumoari buruzko araudiaren eta horrekin bat datozen bestelako araudien arabera erreklamazio-libururik edo -orririk ez izateagatik.
- Erabiltzaileek egindako erreklamazioak DONOSTIA TURISMOARI ez entregatzeagatik, Baldintza Teknikoen Pleguko 3.3. Klausularen arabera.
- **Kontratuaren estimatutako balioaren % 1,5en zenbateko baliokidea kasu hauetan:**
  - Ibilbideak aldatzeagatik udalaren nahitaezko baimenik gabe edo Donostian Plegu honetan edo Baldintza Teknikoen Pleguan finkatutako edo DONOSTIA TURISMOAK alde aurretik baimendutakoez bestelako bidaiak egiteagatik.
  - Zerbitzua eskainitako epean ematen ez hasteagatik, bertan behera uztea erabakitzen ez denean.
  - Finkatutako baldintzak betetzen ez dituzten ibilgailuak zerbitzura atxikitzeagatik.
  - Baimendutakoak ez diren tarifak kobratzeagatik.
  - Zerbitzua arrazoitutako kausarik gabe erabat eteteagatik.
  - Bidaiariak baimendutako geltokiak ez diren beste leku batzuetan hartu edo uzteagatik.
  - Ibilgailuaren gidariaren gaitasun profesionala edo gaitzen duen titulua ez izateagatik.
  - Geltoki-zutabeak udalaren baimenik gabe jartzeagatik.
  - Eskatutako aseguruen polizak hitzartu gabe izateagatik edo horien ordainketan egunean ez egoteagatik.
  - Fakturazioko kontuak hilerok ez aurkezteagatik.

Kontratuaren egikaritzearekin jarraitzea aukeratzen duenean, ezarritakoa betetzen ez den egoerak bere horretan irauten duen bitartean, DONOSTIA TURISMOAK edozein unetan utzi ahal izango du kontratua bertan behera, lehen aipatu ditugun ondorioekin.

Zigorrek behin betiko bermetik ordainduko dira, dagokion erreklamazioa jasota, osatutako bermetik gainditzen den zenbatekoan.

Edozein kasutan, kontratua bertan behera uztea nahiz jarraitzea erabakiz gero, DONOSTIA TURISMOAK alde bakarretik erabaki ahal izango du zerbitzuarekin jarraitzea beharrezko jotzen duen denboran, hirugarrenen bidez. Jarraipen

horren kostuak kontratistari egotziko zaizkio kalte-galerengatiko kalte-ordainari eta klausula honetan aurrez ikusitako gainerako ondorioei kalterik egin gabe.

## **25. KONTRATUAREN LAGAPENA**

Kontratutik etorritako eskubideak eta betebeharrak aldeztu aurretik DONOSTIA TURISMOAREKIN baimena espresuki eta idatziz adostuta soilik laga ahal izango dira hirugarren batzuei eta lagapen-hartzaileak DONOSTIA TURISMOAREKIN kontratatzeke lege-baldintzak eta Plegu honetako eskakizunak betetzen dituzenean, betiere, kontratatzeke debekurik ez duenean, kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala ziurtatzen duenean eta Plegu honetan eta eskaintzako osagarrian aurrez ikusitako baliabideak atxikitzeke betebeharra betetzera konprometitzen denean. Hori guztia lagapenaren xede diren prestazioei dagokienez egingo da.

## **26. AZPIKONTRATAZIOA**

Kontratuko prestazioak aldeztu aurretik DONOSTIA TURISMOAREKIN baimena espresuki eta idatziz adostuta soilik azpikontratatu ahal izango dira eta azpikontratatuak DONOSTIA TURISMOAREKIN kontratatzeke lege-baldintzak eta Plegu honetako eskakizunak betetzen dituzenean, betiere, kontratatzeke debekurik ez duenean, kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala ziurtatzen duenean eta Plegu honetan eta eskaintzako osagarrian aurrez ikusitako baliabideak atxikitzeke betebeharra betetzera konprometitzen denean. Hori guztia azpikontratatu beharreko prestazioei dagokienez egingo da.

Horrez gain, lizitatuak kontratua exekutatzeko aurrez ikusitako azpikontratazioen zerranda aurkeztu ahal izango dute, Klausula honen aurreko paragrafoan finkatutakoa betez.

## **27. KONTRATUAREN ALDAKETAK**

Kontratazio-organoak SPKLTBko 107. artikuluan aurrez ikusitako baldintzetan aldatu ahal izango du kontratua.

Horrez gain, kontratua denon adostasunarekin aldatu ahal izango da, DONOSTIA TURISMOAK bere ekimenez edo esleipendunak proposatuta zerbitzua zabaldu edo murriztu nahi duenean. Aldaketa horrek ibilbideen, maiztasunen, ordutegien eta abarren hedapena edo murrizketa ekarri ahal izango du. Hedatuz gero, aplikatu beharreko prezioak, gehienez, Plegu honetako 7. Klausulan finkatutakoak izango dira. Nolanahi ere, paragrafo honetan finkatutako hedapenak zehaztutako prezioaren igoera ezingo da inolaz ere aipatutako 7. Klausulan finkatutako balio estimatuaren % 20 baino handiagoa izan.

## **28. ERANTZUKIZUNA**

Kontratuaren exekuzioak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrengoei eragindako kalte-galera guztien kalte-ordainak ematea kontratistaren betebeharra izango da.

Kontratista garatutako lanen kalitate teknikoaren eta egindako prestazioen arduraduna izango da, baita kontratuaren exekuzioko gabezia, akats eta metodo desegokiek DONOSTIA TURISMOARENTZAT edo hirugarrengoentzat ekarritako ondorioen arduraduna ere.

## **29. KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEA**

Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak izango dira SKPLTBko 223. artikuluko a) –85. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe–, b), d), f), g) eta h) letretan aurrez ikusitakoak eta, oro har, kontratuzko betebeharren ez betetze oro, Kode Zibileko 1.124. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Era berean, kontratua edozein unetan utzi ahal izango da bertan behera Donostiako Udalak DONOSTIA TURISMOARI egindako kudeatzeko agindua baliogabetuta, esleipendunari sei hilabete lehenagotik abisatzeko beste baldintzarik gabe eta kalte-ordainezko edo bestelako inolako ondorioz gabe.

Klausula honetan aurrez ikusitako kontratua bertan behera uzteko kasuetako edozeinetan, baliogabetze hori automatikoki egingo da, DONOSTIA TURISMOAK kontratistari modu frogagarrian jakinaraztea beste baldintzarik gabe.

Behin jakinarazpen hori jasota, kontratistak kontratazioaren babesean baimendutako garraioaren jarduera berehala eten beharko du.

Hori guztia, ondoren xedatutakoari jarraiki, dagokion kontratuaren likidazio ekonomikoari kalterik egin gabe egingo da.

Klausulan aurrez ikusitako arrazoiengatik eta legez bidezkoak izan daitezkeen beste edozein arrazoiengatik, kontratua bertan behera uztekin erator daitezkeen erantzukizun ekonomikoak kontratua eraginkortasunez ebatzi eta dagokion dokumentazioa entregatu ondoren likidatuko dira. Era berean, DONOSTIA TURISMOAK exekuzioarekin jarraitu ahal izateko eragozpenik ez du izango.

Kontratua bertan behera uztea kontratistari egozgarria zaion edozein arrazoiengatik gertatzen denean, DONOSTIA TURISMOAREN alde, izaera metagarriarekin, dagozkion kalte-galerengatik indemnitazioez gain, kontratuaren balio estimatuaren % 20ren zenbateko baliokidea sortuko da. Bi kantitate horiek behin betiko bermetik kenduko dira eta, kasuan kasu, soberakoa erreklamatu egin ahal izango da.

Kontratua bertan behera geratutako edozein kasutan, kontratuaren exekuzioari atxikitako esleipendunaren elementu materialak, autobusa barne, esleipendunaren erabateko jabetzan eta erabileran geratuko dira, inolako

ordainketarako eskubiderik sortu gabe, aurrerantzean kontratuaren xede diren jardueretarako erabiltzeari uko eginez.

### **30. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA**

Kontratuaren prestaketa eta esleipena Klausula Ekonomiko Administratiboen Plegu honek eta Baldintza Teknikoen Pleguak arautuko dute eta horietan aurrez ikusi gabeko kasuetan, xede horretarako, SKPLTBn finkatutako arauak eta, kasuan kasu, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duen 2009ko maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuan (aurrerantzean, 817/2009 ED) finkatutako arauak eta arau horietan xedatutakoari aurka jartzen ez zaionean, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra (aurrerantzean APKLAO) onartzen duen 2001eko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak arautuko dute.

Kontratuaren ondorioei eta hura iraungitzeari dagokionez, Klausula Ekonomiko Administratiboen Plegu honek, Baldintza Teknikoen Pleguak eta, horietan aurrez ikusi gabeko gaitan, zuzenbide pribatuko arauak arautuko dute kontratua, horren aldaketarekin lotutako alderdietan salbu, orduan SPKLTBko I. liburuko V. tituluaren xedatutakoa aplikatuko da nolahi ere.

Horrez gain, SKPLTB, APKLAO eta 817/2009 Errege Dekretua aplikagarriak izango dira Plegu honetan araudia biltzen duten testu horietara bideratzen duen gai guztietarako.

Gaiaren arabera, Donostiako Hiri Garraio Publikoaren Zerbitzuko Araudian, indarrean dagoen unean uneko Errepideko Bidaiari Garraioaren araudian eta aplikagarri izan daitekeen sektoreko beste edozein arauditan xedatutakoaren arabera arautuko da kontratua.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenak izango du lizitazio honen garapenarekin lotutako auzi-gaiak eta, oro har, kontratua prestatzeko eta esleitzeko fasearekin lotutako gaiak konpontzeko eskumena.

Kasuan kasu, kontratazioaren alorrean errekurtsio berezia jarriko da, SKPLTBko 40. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Aipatutako errekurtsio berezia Donostiako Udalaren izenean kargua duen organo independentearen aurrean jarriko da, DONOSTIA TURISMOAREN kontratazioko barne-jarraibideetan eta SKPLTBko 41. artikuluko 5. atalean xedatutakoaren arabera.

Jurisdikzio-ordena zibilak izango du eskumena kontratuaren ondorioekin, betekizunarekin eta amaierarekin zerikusia duten alderdien artean sortutako eztabaidak ebazteko.

## **I. ERANSKINA. ABALAREN EREDUA**

[...] erakundeak (*kreditu-erakundearen izen soziala edo elkarren bermerako sozietateen izen soziala*), [...] IFK duenak eta [...] helbidea duenak (*jakinarazpen eta eskakizunen ondorioetarako*) eta horren izenean [...] (*ahaldunaren izen-abizenak*), egintza honetan behartzeko behar adina botererekin, dokumentuaren beheko aldean adierazitako ahalordea askiestearen ondorioz, honako honi emango dio ABALA: [...] (*abaldunaren izen-abizenak edo izen soziala*), [...] IFK, Donostian autobus turistikoaren garraioari lotutako ohiko eta ezohiko zerbitzuak emateko kontratutik sortutako betebeharrei erantzuteko, zenbateko honekin: [...] euro (*idatziz eta zenbakiz*).

Erakunde abal-emaileak bere erantzukizunpean aitortzen du Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duen 2001eko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 56.2. artikuluan aurrez ikusitako baldintzak betetzen dituela. Abala obligaziodun nagusiarekin bat eginik emango da, espresuki uko eginda eskusio-onurari eta DONOSTIA TURISMOA, SAK egindako lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoarekin.

Abala indarrean egongo da DONOSTIA TURISMOA, SAK edo horren izenean legez gaitutakoak baliogabetzea edo itzultzea baimendu arte.

Lekua eta eguna [...].

Erakundearen izen soziala [...].

Ahaldunen sinadura [...].

## II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUN AITORPENAREN EREDUA

".....ja  
unak/andreak, ..... bizilekua  
.....  
..... helbidean duenak, ..... NAN zenbakia duenak,  
..... telefonoa ..... duenak,  
..... posta elektronikoa duenak, erabateko gaitasun  
juridikoarekin eta jarduteko erabateko gaitasunarekin, bere izenean  
(edo.....  
.....(r)en ..... izenean, ..... horren  
helbidea.....  
..... izanik eta NAN edo IFK zenbakia [*pertsona fisikoa edo juridikoa den*]  
..... izanik), Donostian autobus turistikoaren garraioari  
lotutako ohiko eta ezohiko zerbitzuak prozedura ireki bidez kontratatzeko  
lizitazioa arautzen duten Klausula Ekonomiko Administrazioen Pleguaren eta  
Baldintza Teknikoen Pleguaren berri izanda,

### AITORTZEN DU:

**LEHENA:** SKPLTBko 60.1. artikuluan eta gaiari buruz indarrean dauden gainerako xedapenetan jasotako kontratatzeko bateraezintasunik eta debekurik ez duela.

**BIGARRENA:** zerga eta Gizarte Segurantzarekin lotuta indarrean dagoen araudiak eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.

.....(e)n, 2013ko .....ren .....(e)an

Sin.: .....

**III. ERANSKINA. ESKATUTAKO KAUDIMENA ETA/EDO GUTXIENEO  
GIZA BALIABIDE ETA BALIABIDE MATERIAL ZEHATZEN ATXIKIPEN  
KONPROMISOA EGIAZTATZEKO LIZITATZAILEAK BESTE ERAKUNDE  
BATZUEN KAUDIMENEAN ETA BALIABIDEETAN OINARRITZEKO ASMOA  
DUENERAKO ADIERAZPENEN NOTARIO AKTAREN EREDUA**

... jaunak/andreak, ... NAN zenbakia duenak, ... IFK zenbakia duen ... enpresaren legezko ordezkari gisa, Donostian autobus turistikoaren garraioari lotutako ohiko eta ezohiko zerbitzuak emateko kontrataziorako lizitazioaren baldintzak oso-osorik ezagutzen dituela adierazten du; ... lizitatzailerak (enpresa lizitatzaileraren izena) kontratazio horretarako lehiatuko da eta lizitatzailerak esleipenduna izanez gero, kontratua exekutatzeko beharrezko baliabideak haren esku jartzeko atzera bota ezin den nahia adierazten du, Kode Zibileko 1257.2. artikuluan xedatutakoa berariaz onartuta. Ordezkatu edo aldatu nahi izanez gero, [...] (e)k berariaz baimendu beharko du.

Idatzi hau [...] (r) en aurrean aurkezteak konpromiso hori onartzea ekarriko du, lizitatzailerak esleipendun ateratzen baldin bada.

..... (e) n, 2013ko ..... ren ..... (e) an.

[Sinadura]

#### IV. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK JASOTZEKO LEHENTASUNEZKO BITARTEKOAREN ADIERAZPENA

.....jaunak/andreak, bizilekua ..... helbidean duenak eta .....NAN zenbakia duenak, bere izenean edo.....(r)en izenean, horren helbidea..... izanik eta NAN edo IFK zenbakia.....izanik, erabateko gaitasun juridikoarekin eta jarduteko erabateko gaitasunarekin, Donostian autobus turistikoaren garraioari lotutako ohiko eta ezohiko zerbitzuak prozedura ireki bidez eskaintzeko kontrataziorako lizitazioa arautu behar duten Klausula Ekonomiko Administratiboen Pleguaren eta Baldintza Teknikoen Pleguaren berri izanda, agiri honen bidez DONOSTIA TURISMOA, SAK lizitazioa dela-eta egin beharreko jakinarazpen oro jasotzeko lehentasunezko bitarteko gisa izendatuko du honako hau:

- **Fax-zenbakia:** .....

Era berean, intereseko datu hauek ere adieraziko dira:

- Harremanetarako telefono-zenbakia(k): .....
- Posta elektronikoaren helbidea: .....
- Posta-helbidea: .....

*[Oharra: jakinarazpenei arintasun handiagoa emate aldera, lehentasunezko bitarteko gisa lizitatzaillearen faxa izendatzea gomendatzen dugu; bitarteko hori erabat baliagarria izango da jakinarazpenetarako, lizitatzailleak berak adierazitakoa baita. Izendapen hori egin ezean, jakinarazpena ziurtatutako posta bidez egingo da adierazitako helbidean. Hala eta guztiz ere, lizitatzailleek faxez egindako jakinarazpenaz gain, postaz beste jakinarazpen bat egiteko eskatu ahal izango dute, faxez egindakoaren baliagarritasuna indargabetu gabe, lizitatzailleak aukeratutako bitartekoa den heinean.]*

.....(e)n, 2013ko .....ren .....(e)an. [Sinadura]

## V. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

.....jaunak/andreak, bizilekua ..... helbidean duenak eta .....NAN zenbakia duenak, bere izenean edo.....(r)en izenean, horren helbidea..... izanik eta NAN edo IFK zenbakia.....izanik, erabateko gaitasun juridikoarekin eta jarduteko erabateko gaitasunarekin, Donostiako autobus turistikoaren garraioari lotutako ohiko eta ezohiko zerbitzuak publizitatearekin prozedura ireki bidez eskaintzeko kontrataziorako lizitazioa arautu behar duten Klausula Ekonomiko Administrazioaren Pleguaren eta Baldintza Teknikoen Pleguaren berri izanda,

### AITORTZEN DU:

1. Donostiako autobus turistikoaren garraioari lotutako ohiko eta ezohiko zerbitzuak 8 urteko epean eta, kasuan kasu, DONOSTIA TURISMO, SAK adostutako urteko luzapenetan, gehienez ere beste 2 urtetan, emateko konpromisoa hartzen duela.
2. Epe horretan, egin daitezkeen luzapenak barne hartuta, zerbitzua prezio unitario hauekin emateko konpromisoa hartzen duela:
  - Autobus turistikoan ohiko garraio-zerbitzua emateagatik ... euro bidaiari gazteagatik eta ... euro bidaiari helduagatik.
  - Jarduerak egitetik eta ezohiko zerbitzuak eskaintzetik lortutako sarreraren % ... (*% 20 gutxienez*).
  - Zerbitzuen hornidurarako atxikitako ibilgailuaren publizitate-ustiaketagatik eta, oro har, kontratazioaren xede diren zerbitzuekin lotutako edozein aprobetxamendu ekonomikotatik lortutako sarreraren % ... (*% 50 gutxienez*).
3. Kontratua egikaritzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.
4. Era berean, lan eta zerga arloan indarrean dagoen legedia betetzera behartuta dagoela.

.....(e)n, 2013ko .....ren .....(e)an

Sinadura